ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO IKASKUNTZA

2002 abendua/diciembre/décembre
Nº 129 zenb.

# El día 28, la Asamblea de Socios elige nuevo equipo presidencial

## Iruñean egindako bileran, Batzorde Iraunkorrak ontzat eman zuen bazkideen oniritzira jarriko den kandidatura

El pasado 15 de noviembre, la Junta Permanente de Eusko Ikaskuntza celebró en Pamplona-Iruñea la última reunión de su mandato antes de las elecciones. Con asistencia del Consejero de Cultura del Gobierno Foral navarro, Jesús Laguna, la Junta Permanente aprobó la única candidatura presentada para la Presidencia y Vicepresidencias territoriales de Eusko Ikaskuntza, que será objeto de votación por la Junta General de Socios, máximo órgano decisorio de la Sociedad, en su asamblea del sábado 28 de diciembre en Donostia-San Sebastián a las 12 del mediodía.

De acuerdo con el Reglamento de Régimen Interior tienen derecho a voto todos los socios de número y protectores que estén al corriente en el pago de sus cuotas diez días antes de la celebración de la Junta. Los socios protectores deberán nombrar por escrito a una persona que les represente. Los socios de número ejercerán su derecho de forma presencial, dado que no se computan votos por correo ni por delegación.

Días antes de la Junta Extraordinaria todos los socios recibirán el programa de actuación propuesto por la candidatura, y ya ante la asamblea, previamente a la votación, el candidato a Presidente esbozará las líneas maestras de su acción para el próximo trienio.

**Sí / No**

La votación se realizará de manera separada en seis urnas, una para el Presidente y cinco para cada uno de los Vicepresidentes. En la urna correspondiente a Presidencia podrán depositar su voto todos los socios asistentes a la Junta General. En las urnas señaladas para las Vicepresidencias territoriales ejercerán su derecho los socios adscritos en cada uno de los territorios.

Al tratarse de un único candidato para cada puesto, la votación se efectuará por afirmación o negación. Para poder resultar electos, los candidatos han de recibir más votos afirmativos que negativos.

**Réglementation de vote**

Le samedi 28 décembre, à Saint-Sébastien, l'Assemblée des Membres élira le nouveau Président et les Vice-présidents d'Eusko Ikaskuntza. Pour voter, les membres doivent être à jour dans le paiement de leurs cotisations dix jours avant le vote. On n'envisage pas le vote par courrier ni par délégation. Etant donné qu'une seule candidature est présentée, le vote s'effectuera au moyen d'affirmation ou de négation du Président et du Vice-président territorial correspondant (dans le cas d'Iparralde, le candidat est Jean-Claude Larronde).

### Egitasmoaren alderdiak

– Eusko Ikaskuntzaren geroa bideratuko duen estrategiari buruzko gogoeta prozesu bat abiaraztea

– Eusko Ikaskuntzaren Kongresua zehatz eta zorrotz prestatzea eta antolatzea, bideratze berri hori sendotzeko foroa izan dadin

– Zientzia Sailak indartzea

– Informazio eta komunikazio teknologia berriak bultzatzea euskal zientzia eta kultura hedatu eta sendotzearren

– Elkarte instrumentalen eta Eusko Ikaskuntzaren kudeatze organoen arteko erlazio estua ezartzea eta horien funtzionamendua elkar lotzea, funtzio eta helburuak argiro zehaztuz eta jarduerak koordinaturik bultzatuz

– Unibertsitate, Zentro eta Erakundeekiko harremanetan sakontzea, hala Euskal Herrikoekin nola kanpokoekin

– Eusko Ikaskuntzaren Zientzia eta Arteen Akademia abiaraztea

– Elkarteko kideen parte hartze eraginkorragoa sustatzea lurraldeen esparruan, horien nortasun politiko-administratiboa eta izaera berezia kontu handiz errespetatuz

– El-k gerra aurreko espiritua berreskuratu beharko luke, gizarte zibila benetan kezkatzen zuten arazoez modu objektiboan iritzia azaltzen zueneko espiritua, alegia

### Baterako Kandidatura

**LEHENDAKARIA:**

Javier Retegui Ayastuy (Bergara, 1937)

**LEHENDAKARIORDEAK:**

*Alava*: Manuel Mª de Uriarte (Bilbo, 1932)

*Bizkaia*: Aingeru Zabala Uriarte (Bilbo, 1949)

*Gipuzkoa*: José Luis de la Cuesta (Donostia, 1955)

*Iparralde*: Jean-Claude Larronde (Baiona, 1946)

*Nafarroa*: Xisto Jiménez (Zangotza, 1950)

# Ibarretxe Lehendakaria Oxforden



**Conferencia en Oxford**

Sir Marrack Goulding en el momento de la presentación del Lehendakari.

Eusko Ikaskuntzak Oxfordeko Unibertsitatean 1996tik kudeatzen duen Basque Visiting Fellowship programaren barruan, aurten ere ekitaldi akademiko berezi bat eratu da Unibertsitate hartan. Ibarretxe Lehendakaria izan da aukeratua eta azaroaren 22an hitzaldi bat eman zuen St Anthony´s College-ko Lecture Theatre izenekoan. Bertara, agintari akademiko zein irakasle ugariz gain, ikasle mordo bat bildu zen. Lehendakariaren aurkezpena Sir Marrack Goulding-ek egin zuen, hitzaldia eman aurretik euskal ordezkaritza bazkari ofizial batera gonbidatu zuena.

Ekitaldian Eusko Ikaskuntzaren ordezkaritza Carlos Caballero Idazkariari egokitu zitzaion eta Lehendakariari mahaian lagunduz, aipatutakoez gain Anjeles Iztueta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburua ere egon zen.

Eusko Ikaskuntzak Oxfordeko Unibertsitatearekin duen hitzarmena lehengo irailean berriztatu zen beste bost urtetarako. Eta itun berriaren arabera, datorren urtarrilean irakasle berri bat joango da Oxfordera, sei hilabetetan zehar bere egitasmoa burutu ahal izateko. Oraingo honetan, Santiago Leoné nafarra zango da irakasle gonbidatua, eta garatuko duen gaia "A foreign view on the Basques. European travellers in the Basque Country" da. Britaniar, frantziar, italiar eta beste nazionalitate askotako bidaiari batzuek, 1780 eta 1945 bitartean Euskal Herriari buruz idatzi dutena aztertuko du ikerle gazte horrek

Bestalde, urtarrilean bertan irekiko da bi hilabeteko epea, 2003-2004 ikasturtean Oxforden lan egin nahi duten euskal irakasleek euren proposamenak azal ditzaten. Ikasturteari 2003ko urtarrilean emango zaio hasiera eta 2004ko ekainean amaituko da. Datorren hilean jakinaraziko dira, 2003-2004 Basque Visiting Fellow izateko Eusko Ikaskuntzak ezarriko dituen baldintzak.

www.eusko-ikaskuntza.org / www.euskoshop.com / www.euskonews.com

# Convenios - Hitzarmenak

## Con Baztan y Treviño

El Ayuntamiento de Baztán ha sellado un Convenio de colaboración con Eusko Ikaskuntza para el desarrollo de actividades culturales y científicas, y otro tanto se hará este mes de diciembre con el Enclave de Treviño. Gracias a esta firma se ha puesto ya en marcha una primera iniciativa encaminada a la realización de un estudio antropológico sobre Treviño (ver condiciones de las becas en página 3).

## Becas para Portugalete

María José Sola Sarabia y Estibalitz Ortiz de Zarate, ambas de Bilbao, María Begoña González, de Portugalete, y Angel Chaparro Sáinz, de Barakaldo, son los becarios elegidos por Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Portugalete para la catalogación de los fondos bibliográficos existentes en la Biblioteca Municipal. Disponen de cuatro meses para realizar las labores encomendadas, a contar desde el día 2 de diciembre.

# 'Basque Visiting Fellow'

Como cada curso, Eusko Ikaskuntza ha abierto una nueva opción para un profesor invitado en la Universidad de Oxford adscrito al St Anthony´s College. Puede participar en la convocatoria cualquier miembro de la comunidad científica. Las investigaciones de estudios vascos se realizarán en cualquiera de las siguientes áreas: Ciencias sociales, historia moderna y contemporánea, antropología, derecho, particularmente de las relaciones internacionales. Se valorará a los candidatos que ofrezcan un proyecto de trabajo de mayor interés y su proyección para la organización del correspondiente *workshop*.



El tiempo de estancia será determinado en la solicitud, optando entre curso académico completo en la Universidad de Oxford, o estancia corta (l periodos Michaelmas Term o Hilary Term y Trinity Term). La retribución ascenderá a 2.404 euros mensuales.

El plazo de presentación de la solicitud y la memoria, redactadas en inglés, finaliza el 15 de marzo. Los impresos se encuentran en las oficinas de la Sociedad y en su página web.

# Jardunaldiak - Jornadas

## Arrantza Jardunaldien ondorioak

**Pêche artisanale**

Les chercheurs réunis à Bermeo déplorent l'absence d'études profondes sur les changements dans le secteur.

Eusko Ikaskuntzak itsas kulturari eskainitako Antropologia Jardunaldiak antolatu zituen azaroaren 8an eta 9an Bermeon. Hainbat herrialdetako –Euskal Herria, Katalunia, Galizia, Andaluzia, Kantabria, Portugal, Frantzia– Ikerketa Erakunde eta Unibertsitateei lotutiko adituek aurkeztu zituzten ikergai horri buruzko txostenak eta komunikazioak, diziplina anitzeko ikuspegik erabiliz.

Ondorioei dagokienez, bildurikoek adierazi zuten ezen "artisau arrantza sektoreaz den pertzepzio sozial, politiko eta ekonomikoa ez dela adosten haren ezaugarriak diren konplexutasunarekin eta aberastasunarekin".

Gertaturiko aldaketak egiaztatu zituzten eta, era berean, azterketa sakonago baten eskasia dela-eta, deitoratu egin zuten "artisau sektoreari buruzko politika asko ez direla izan zitezkeen bezain emankorrak gertatu", bai eta "gaur egun -huts eginez- artisau sektorea bazterreko eta etorkizun aukerarik gabeko sektoretzat hartzea" ere.

## Jornada sobre Arbitraje Comercial Internacional



De izquierda a derecha: Gabriela Álvarez, Juan José Alvarez Rubio y Carlos Fernández Rozas.

El pasado 22 de noviembre tuvo lugar en el Palacio Miramar de Donostia-San Sebastián una Jornada sobre Arbitraje Comercial Internacional organizada por el Máster en Derecho del Comercio Internacional por Internet (MICI), el Departamento de Derecho de la Empresa de la UPV-EHU y el Máster en Abogacía de Empresa. La Jornada contó con las intervenciones del Catedrático de Derecho Internacional Privado de la UPV/EHU y Director del Máster MICI, Juan José Alvarez Rubio, del Catedrático de Derecho Internacional Privado de la Universidad Complutense de Madrid, José Carlos Fernández Rozas y la *Legal Counsel* del Centro Internacional de arreglo de controversias en materia de inversiones del Banco Mundial (Washington), Gabriela Álvarez.

Los alumnos del Curso por Internet MICI pudieron asistir a dicha Jornada presencial, así como los alumnos del Curso de Mercados Financieros FIME. Varios profesionales del mundo de la abogacía y la Empresa también se acercaron a escuchar las ponencias.

# Argitalpenak - Publications

## Errotak eta energia

Azaroaren 5ean *Errotak eta energia berriztagarriak Euskal Herrian* liburua aurkeztu zen Beasainen. Izan ere, Eusko Ikaskuntzak 2000 urtean antolaturik, errotak aztergai zuten Jardunaldietan emandako txostenak biltzen dira argitalpen honetan. Aurkezpen ekitaldian hitz egin zuten Jon Jauregi, Beasaingo alkateak, Ana Toledo, Eusko Ikaskuntzaren Gipuzkoako lehendakariordeak, eta Juantxo Agirre-Mauleon, Jardunaldien arduradunetako batek. Beasaingo Paperak bilduman argitaraturiko liburu honek errotagintzari buruzko azterlan multzo bat biltzen du; geografia eta kronologia esparru zabaleko lanak dira eta hainbat diziplina zientifiko elkartzen dituzte, hala nola historia, arkeologia eta are filosofia ere.

## Sur la pelote basque

Avec le soutien d'Eusko Ikaskuntza Iparralde, Jakes Casaubon et Pierre Sabalo, responsables à la Fédération Française de Pelote Basque, et chercheurs, ont publié un livre sur la *Mémoire de la Pelote Basque et des jeux de bergers/Euskal Piloraren gogoa eta artzain jokoak*, présenté le 16 novembre à Baiona. Cet ouvrage est actuellement le seul traitant du Bota Luze, de la Longue Paume au Pays Basque.

Elaboré avec une rigueur scientifique, il ne comporte que des données historiques vérifiées. Cette étude a pour but de sauver de l'oubli définitif, l'un des aspects les plus précieux et les plus méconnus de l'ethno-pastoralisme basque.






## Éxito del curso sobre heráldica

Con satisfactoria presencia de cursillistas procedentes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra, y un alto interés didáctico, se desarrolló en Vitoria-Gasteiz los días 9 y 16 de noviembre el primer curso sobre genealogía y heráldica impartido por el profesor Juan Vidal-Abarca.

La acogida dispensada anima a Eusko Ikaskuntza a dar continuidad en el futuro a nuevas actividades de estudio en relación con la genealogía y la heráldica.

## Hitzordua zintzo bete

Eusko Ikaskuntzak ez zuen huts egin Durangoko Euskal Liburu eta Diskoaren Azokaren urteko hitzorduan, aurten abendu honen 4tik 8ra bitartean egin dena. Produktu bibliografiko berriak eta azken argitalpen elektronikoak erakusgai izan ziren gure standean.

"Historiaurrea Euskal Herrian" eta "Erromanizazioa Euskal Herrian" cd-rom formatuko joko didaktikoak izan ziren bezeroek gehien eskaturiko produktuak. Izan ere, jende ugari erakarri zuen Eusko Ikaskuntzak argitaraturiko izenburu eskaintza zabalak.

# Euskarazko publizitatearen inguruan

**Publicidad y euskera**

Será el tema de la Jornada de estudio del 17 de enero en Bilbao, organizada por Eusko Ikaskuntza y Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa.

Eusko Ikaskuntzaren Komunikabideak Sailak eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak antolaturik, euskarazko publizitatearen inguruko Jardunaldi bat egingo da Bilbon, urtarrilaren 17an. Hiru txosten eta mahai inguru baten bidez, Jardunaldia euskal errealitatera hurbilduko da.

Euskarazko publizitatearen errealitate hori komunikabideen atal komertzialetan agertzen den moduan hartuz eta publizista, argitaratzaile, enpresa eta adituen ikuspuntuak ekarriz. Joseba Etxeberria, Leioako Unibertsitateko irakasleak hartuko du bere gain euskarazko publizitatearen egungo egoera azaltzea; bestalde, gure inguruan "tokiko informazioaz" zer ulertzen den aztertuko du Idoia Camacho ikertzaileak. Orobat, Kataluniako tokiko zein eskualdeko aldizkarietako publiziteaz esperientzia ezagutaraziko digu Félix Noguera, Regió 7 egunkariko jerenteak.

Arratsaldean egitekoa den mahai inguruan, Mikel Irizar Goiena Komunikazio Zerbitzuaken sortzailea moderatzaile lanean ariko dela, honako hauek parte hartuko dute: Ion Manzisidor (BBK), Amaia Paniagua (Trupp publizitate enpresa), Josemari Irazusta (Argia aldizkaria) eta Iñigo Martin (EITB).

# Becas de Antropología

Los dos municipios que conforman el Enclave de Treviño, La Puebla de Arganzón y Condado de Treviño, por medio del Convenio de colaboración firmado con Eusko Ikaskuntza, otorgan tres becas para la realización de una investigación antropológica en el Enclave. La investigación, basada en el trabajo de campo y en la recopilación de datos, estudiará y analizará las costumbres y creencias de los treviñeses. Los aspirantes serán licenciados en Antropología y/o tendrán que demostrar fehacientemente conocimientos en investigación de campo.

La dotación económica asciende a 3.600 euros brutos cada beca, más un máximo de 900 euros para gastos de viaje y manutención debidamente justificados. El plazo de realización de la investigación no superará los seis meses. Tendrán preferencia aquellas personas que residan o puedan residir en el Enclave de Treviño. Las solicitudes, plan de trabajo y curriculum vitae deben entregarse en las oficinas de la Sociedad en Vitoria-Gasteiz antes del 13 de diciembre.

# 'Historiaurrea Euskal Herrian': Un juego para descubrir la Prehistoria

Eusko Ikaskuntza, en colaboración con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco dentro del programa EIMA, ha editado un nuevo CD-Rom de carácter lúdico y pedagógico: "Historiaurrea Euskal Herrian" es un producto multimedia dirigido a un público comprendido entre los 10 y 16 años (aunque interesante para un abanico más amplio de edades).

El juego tiene como finalidad aportar un conocimiento general sobre las distintas etapas de la prehistoria en Euskal Herria y su entorno, y hacerlo de un modo ameno y atractivo. Potenciando la participación mediante altas dosis de interactividad, se muestra la evolución del tipo humano, el hábitat y los espacios naturales reales de Euskal Herria y su entorno.

Este multimedia junto con las últimas publicaciones bibliográficas, son las principales novedades que presenta Eusko Ikaskuntza este año en su stand en la Feria del Libro y el Disco Vasco de Durango.




# Tertulias radiofónicas

No hay vacaciones navideñas para las tertulias radiofónicas que Eusko Ikaskuntza pone en las ondas a través de las emisoras guipuzcoanas de Herri Irratia y de Radio Vitoria. En el segundo domingo de diciembre (a las 22 h.), por Radio Vitoria se conversa sobre la Feria del Libro y el Disco Vasco de Durango, y en semanas sucesivas se hablará sobre *Concejos Alaveses ante el Siglo XXI, La Batalla de Villarreal, Heraclio Fournier, Inmigración y resistencias a la integración.* En Herri Irratia de Loiola (los jueves de 18 a 19 h.) y Donostia (sábados de 11 a 12 h.), las tertulias girarán sobre temas de tanta actualidad como *Vertidos en el mar, Alzheimer, Entorno pagano de las navidades, Los emigrantes y la Navidad, Alimentos transgénicos, Medicinas alternativas* y *Vivienda ecológica.*


**BEHERAPEN KUPOIA**

**Heziera jokoak**

**"ERROMANIZAZIOA EUSKAL HERRIAN"**

**"HISTORIAURREA EUSKAL HERRIAN"**

**9 eurotan bakoitza (% 50ko beherapena)**

**Kupoi hau EUSKOSHOPen aurkeztuz edo bertan eskatuz**


# Data aldaketa

Eusko Ikaskuntzako Musika Sailak eta Musikene-Donostiako Musika Goi Ikastetxeak batera antolatzen duten Euskal Kantutegiei buruzko Jardunaldia, abendu honetarako aurreikusia zegoena, atzeratu egin da datorren urtea arte. Zehazki, otsailaren 14a, ostirala, da horretarako izendaturiko eguna, eta Donostiako Miramar Jauregia lekua. Egitarauak, nolanahi ere, ez du aldaketarik izango eta ASMOZ TA JAKITEZen aurreko alean iragarritakoa bera izango da.

## Agenda

**Abendua / Diciembre / Décembre**

4-8: Eusko Ikaskuntza en la Feria del Libro y el Disco Vasco de Durango

9 y 12: Donostia, Bruselas. Jornadas sobre la Convención para el futuro de Europa

13: Finaliza el plazo para la presentación de proyectos a las becas para Treviño

28: Junta General de socios: elección de Presidencia de Eusko Ikaskuntza

**Enero / Urtarrila / Janvier**

17: Bilbao. Jornada de Medios de Comunicación

**Febrero / Otsaila / Février**

14: Jornada de Música

**Marzo / Martxoa / Mars**

15: Fin del plazo de admisión de solicitudes para acceder a la plaza de profesor visitante en Oxford

23: Jornada sobre Meteorología

http://www.eusko-ikaskuntza.org/

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

# Euskarazko Publizitateari Buruzko Jardunaldiak



**Joxemari Muxika**

*Eusko Ikaskuntzako Komunikabide Saileko idazkaria*

Azken hamar-hamabi urte hauetan euskaraz egiten den publizitatea asko ugaldu da. Asko ugaldu dira euskaraz dihardutenhedabideak eta hauen artean, Tokiko aldizkariak izan dute hazkunderik handiena: gaur egun, astero, hamabostero eta hilero argitaratzen diren Tokiko aldizkariek batera urtean 6.846.000 ale banatzen dituzte. Hau da, astero 64.800 ale, hamabosterokoek sartzen direnean 109.300 ale eta hilerokoak gehitzen direnean 169.300 ale.

Egia da euskal hiztunen geografiari begiratuta, ez dela banaketa orekatua. Ale bakarrik banatzen ez diren zuloak badaude. Baita oso banaka hartzen dituzten guneak ere. Baina aurrekoari kontrajarritta, sendi guztietan jasotzen dituzten udalerri edo eskualdeak daude. Esan dugun Tokiko aldizkarien tiradak, publizitatea egin nahi duten enpresen aldetik kontuan hartzekoak dira. Publizitate agentziek ezagutzen al dute aukera hau?

Norbaitek galdetuko du euskarazko Tokiko aldizkariak irakurri egiten al diren. Egin diren azterketek, galdera horri baiezkoa erantzunarazten digute. Jakina da, sendi guztietan denak ez dakitela euskaraz. Hizkuntzak bere muga jartzen du. Baina aldizkaria hartzen duten guztiek irakurtzen dute eta sendikoen artean euskara dakitenen %80ak irakurtzen du. Gainera azterketaren emaitzek diotenez, irakurtzen ez dakitenek ezaguna zaion egoera edo gertakariren baten informazioa aldizkarian nabarmentzen badu, argazkiek eraginda edo komentarioa entzun duelako, euskara dakien sendiko edo aldameneko lagunari galdezka hasten zaio. Beraz bai, irakurtzen da eta asko irakurtzen da.

Horrelako bitartekoak izan eta, zer gertatzen da publizitatearekin? Gaur euskaraz egiten den publizitateari erreparatzen badiogu, batez ere irratietan eta prentsa idatzian egiten denari, gehiena tokiko publizitate dela esan genezake. Gainera tokiko publizitatean euskararen erabilera askoz handiagoa da tokikoa ez den publizitatearekin konparatuz. Baina ez daukagu ziurtasunik eta hainbat galdera sortzen dira: Horrela al da? Zenbat diru gastatzen da hizkuntza bakoitzean? Zergatik gertatzen da hau? Prest al daude agentziak, publizitatea euskaraz diseinatzeko eta eskaintzeko?

> **«¿Cuáles son las razones de que los gestores de los medios publicitarios no utilicen la prensa local?»**

Publizitatea, portzentai handi batean produktuak ezagutarazteko egiten da, noski. Baina ezagutarazte ekintza horretan ez da berdin zer irudi ematen den. Ezagutaraztea bakarrik balitz, euskal hiztunak eleanitzak izanik ingelesez datorren publizitatea ere behar bada ulertuko luke. Alegia, euskaraz ez egin arren mezuaren jakitun izango liratekeela. Baina produktu horrek ematen duen irudia ez da berdin sumatzen. Nola baloratzen dute enpresek egoera hau? Produktu bat izan edo bestea izan alderik badago?

Hauek dira Eusko Ikaskuntzako Komunikabide Sailak eta Topagunea euskara elkarteen federazioak elkarrekin antolatzen ari diren jardunaldietan argitu nahi diren galderatako batzuk. Partaidetza aldetik, jardunaldi hauek gai hauekin dabiltzan aldizkarietako eta agentzietako profesionalen interesa dagoeneko piztu dute. Unibertsitateko ikasle eta irakasleei ere, gaiak ezagutza zabaltzeko aukera ematen die. Eta enpresetako marketing sailetan dabiltzan profesionalek ere harremanak izateko eta terrenoa ezagutzeko ematen duen aukera kontuan hartzekoa lukete.

## LIBURUAK

**Tierra y Gentes (75 temas vascos)**

AGUIRRE SORONDO, Antxon
Donostia: Ttarttalo, 2002

El presente libro recoge una selección de 75 temas relacionados con la forma de vivir, de trabajar, de relacionarse, de divertirse, de alimentarse, de expresarse o de pensar de los vascos. Se trata de un centón de piezas publicadas en su mayoría en prensa, con un carácter directo y divulgativo. El autor persigue la síntesis, el bosquejo rápido con un estilo sencillo pero sin merma de rigor. Aun pudiendo añorar mayor profundidad, debe reconocerse en estos textos su virtud didáctica y su capacidad para convertir la etnografía en materia de muy grata lectura. El libro, magníficamente editado, se estructura en ocho capítulos: *La alimentación y sus oficios, Ocio, Mundo mágico, Cultura simbólica, Así somos, así vivimos, Formas de la espiritualidad, Oficios de ayer, Figuras en el río*.




**Gotorlekuak Gipuzkoan XVI-XIX. mendeak**

SAEZ, Juan Antonio
Donostia: Diputación Foral, 2002

Bertan bildumaren 18. aleak Gipuzkoako gotorleku militarrak ditu aztergai. Mapa, plano, eskema eta argazki ugariren laguntzaz, lurralde horretako defentsa eraikuntzak aztertzen ditu banan-banan: Gazteluzar, Pasaiko dorrea eta Santa Isabel gazteluak, Hondarribiko Karlos V.a, Donostiako San Telmo eta Motako Gurutze Santua. Kapitulu batek gotorleku modernoen tipologiaz dihardu (Donostia eta Hondarribia), eta horren ondoren karlistaldietako gotorlekuak aztertzen dira. Gero, XIX. mendeko gotortze teknikak aipatzen dira eta obra bitxi bezain ezezagunak agertzen dira, hala nola lubakiz horniturikoalorra Oiartzunen eta espainiarren eta amerikarren arteko gerra denborako gotortze lanak.







## Urte berri on!

*Eusko Ikaskuntzak 2003 urte emankorra eta kultura aldetik guztiz onuragarria opa die bazkide, laguntzaile eta lagun guztiei. Gure Elkartearen irudi den Jakintzaren Zuhaitzetik abar ugari eta mardulak sortuko ahal dira 2003an ere, Euskal Herria deritzan munduko txoko txiki honetan bizi garen emakume eta gizonen onetan. Bakea eta Zoriona! Izan ezazue 2003 zoriontsua!*

Argitaratzailea: Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Zuzendaria: Josemari Velez de Mendizabal. - L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861. Inprimategia: Juaristi. Itziar
Harpidetzak: Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:
Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak: Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Tel. 943-310855. Fax 943-213956. E-mail: ei-sev@sk.ehu.es. Arabako Bulegoa: San Antonio, 41. 01005 GASTEIZ. Tel. 945-231552. Fax 945-148752. E-mail: eigazteiz@infonegocio.com. Bizkaiko Bulegoa: María Díaz de Haro, 11-1. 48013 BILBAO. Tel. 94-4425287. Fax 94-4414650. E-mail: eibilbo@infonegocio.com. Nafarroako Bulegoa: Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D. 31001 IRUÑEA. Tel. 948-222105. Fax 948-211737. E-mail: gaztelu@infonegocio.com. Iparraldeko Bulegoa: Faculté Pluridisciplinaire, 29-31, cours du Comte de Cabarrus. 64100 BAIONA. Tel. 559 529299. Fax 559 310518. E-mail: Eusko.Ikaskuntza@univ-pau.fr